

# **Txantxiku Ikastolaren astea**

**apirilaren 18tik 24ra**

# **2016**

**e g i t a r a u a**



# ikastolaren astea: egitaraua

## Apirilaren 18tik maiatzaren 6ra Oinez Ikastolara

Aurten, eta ESKOLA BIDEarekin bat eginez, apirilaren 18tik maiatzaren 6ra "Oinez, ikastolara" ekimena burutuko dugu. Utz ditzagun kotxeak etxean eta goazen denok elkarrekin ikastolara! Ariketa fisikoa eginez, gure herria hobeto ezagutuz, lagunekin harremanak sendotuz, ingurumena zainduz, puntualak izanez, autonomia garatuz... [Ordutegi eta ibilbideak ikastolako webgunean.](#)

## Apirilaren 18tik 22era Munduko hezkuntzaren astea

Ospakizun honekin bat eginez Txantxiku Ikastolan **Saharako haurrentzako eskola material bilketa** egingo da. Ikasleek beraien geletara ekarri dezaketen materiala honako hau da: margoak, arkatzak, boligrafoak, koadernoak... **MILA ESKER ZUEN PARTAIDETZAGATIK!**

## Apirilaren 19tik 23ra Irakurketa astea



Aste honetan zehar etapa guztietan irakurzaletasuna bultzatzeko ekintza desberdinak burutuko dira: ikasleen arteko liburu trukaketa, jolasak, erakusketak, ipuin kontalariak, irakurketa saioak... Egun hauetan Ikastolako aretoan **LIBURUTEGI ERRALDOIA** ikusi eta goatzeko aukera izango da. [Egitarau osoa ikastolako webgunean.](#)

## Apirilaren 19tik 21era Sukaldatuz



LH 6. mailako ikasleek **BASQUE CULINARY CENTER**rekoekin batera **SUKALDATUZ** programa aurrera eramango dute: erosketak egin, bazkaria prestatu, elikadura osasuntsuaz jardun, ... Ekimena osatzeko asmoz, gurasoentzat sukaldaritza saioa ere antolatuko da: apirilaren 21ean arratsaldeko 17:30etik aurrera, **PAGO USO** elkartearen.

## Apirilaren 22an EGUBAKOITZA Ikasleen eguna

### Goizez

- HH eta LHko ikasleentzat **EKINTZA BEREZIAK** gelan eta Santa Ana eraikuntzako patioan.
- Azoka plazan eta Zubikoa kirodegian BHko ikasleen arteko **JOLASAK**, tortilla lehiaketa, ginkana, argazki rally-a...
- 14:00etan, BH-ko ikasle eta irakasleen arteko **BAZKARIA**.

### Arratsaldez

- 14:30etik 16:30era plazako pilotalekuan **JOLASAK** BHko ikasleentzat, TTAK taldeak (Ikasleen Euskara Taldeak) antolatua.
- 16:30etik 18:00etara **JOLAS PARKEA** Santa Ana eraikineko jolas lekuan.
- Zubikoa kirodegiko pilotalekuan **JAIALDIA**. Bertan Haur Hezkuntzako 5 urteko gelako haurrek, LHko 1., 2., 3. eta 4. mailako ikasleek, DBHko 1. mailako ikasleek eta Kantu Tailerreko kideek parte hartuko dute. 14:30ean ikasleentzako emanaldia eta **18:00etan gurasoentzat, eta, oro har, herritar guztientzat.**





Apirilaren 21etik 28ra

## Diwan eskolakoekin elkartrukea

Carhaix herriko Liçee Diwan ikastetxeko ikasleak gure artean izango dira eta gure inguru eta ohiturak ezagutzeko aukera izango dute hainbat ekintza eta irteeren bitartez. Aste honetan zehar DBH 4. mailako frantseseko ikasleen etxeetan egongo dira.

Apirilaren 21ean

## Antzerki emanaldiak

ETC Theatre Company-ren eskutik antzerki emanaldiak:

- 11:15: DBH 1., 2. eta 3. mailakoentzat **Death by Haircut**
- 15:00: LH 5. eta 6. **Shakespeare in Chicago**



Apirilaren 22 eta 23an

## Elkartasun ekintza

Aurten ere Txantxiku ikastolaren eguneko ospakizunen artean **BIDEZKO MERKATARITZA** denda jarriko dugu apirilaren 22 eta 23an Txantxiku Ikastolako aretoan. Bertan salduko diren produktuak garapen bidean dauden herrialdeetako komunitateek egindakoak dira eta bitartekaririk gabe erosi ahal izango ditugu. Lan hau egiteagatik jasotako dirua **SAHARA**ra bidaliko da. Ziur gaude bertara gerturatuko zaretela.

Apirilaren 24a Domeka

## Bizikleta martxa

Eskola Agenda 21 lan taldeko ikasle, guraso eta langileek antolatuta 2. BIZIKLETA MARTXA.

Bi irteera antolatu dira adineen arabera. Irteera KIROLDEGI AURREAN. Itzuleran, SUSTRAI fruta dendak eskainitako fruta dastatzeko aukera izango dugu.

- 11:30: LH 3. mailatik aurrerakoentzat. Elorregi auzoa (San Prudentzio)
- 12:00: LH 2. maila artekoentzat. Santxolopetegi auzoa (Magdalena).



Apirilaren 23an ZAPATUA

## Ikastolaren eguna

### Goizez

- 11:00etatik aurrera Plazako pilotalekuan **EKINTZAK**
- 11:00etatik aurrera Santa Ana eraikuntzan **ATE IREKIAK** (puzgarriak, esku-lanak...)
- 11:00-13:00:
  - **TALO TAILERRA** ikastolako patioan
  - **Eskola Agenda 21eko erakusketa** aretoan
  - Aretoko Liburutegi Erraldoian tarteka gurasoak ipuin kontalari arituko dira.
  - Ikastolako patioan: **Kilometroak** eta **BATXI 1eko** ikasbidairako **material salmenta**

### Arratsaldez

**PIRRITX, PORROTX eta MARI MOTOTS** pailazoen **AMALUR** ikuskizuna Zubikoa kiroldegiko pilotalekuan:


ez dira  
sarrerak  
itzuliko

**2 saio** ➔

**16:30ean**

**18:30ean**





**Txantxiku Ikastola**  
San Juan kalea 1  
Tel.: 943 78 12 04  
Posta-e: [txantxiku@ikastola.eus](mailto:txantxiku@ikastola.eus)  
[www.txantxikuikastola.eus](http://www.txantxikuikastola.eus)

